ADINBERRI2026-001

AKORDIOA/ACUERDO

Adinberri Gipuzkoako Foru Aldundiaren estrategia diseinatzeaz, garatzeaz, gauzatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzen den sektore publikoko fundazioa da, Gipuzkoa kohesionatu eta belaunaldi guztientzat Zahartze Osasungarrirako Estrategia bat bultzatuz Gobernantza Kolaboratibo eta aurreratzaile batetik biztanleriaren zahartzeak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko.

La fundación Adinberri Fundazioa es la Fundación del sector público encargada de diseñar, desarrollar, ejecutar y evaluar la estrategia de la Diputación Foral de Gipuzkoa para enfrentar los retos que plantea el envejecimiento de la población desde una Gobernanza Colaborativa y anticipatoria para una Gipuzkoa cohesionada y para todas las generaciones Impulsando una Estrategia para un Envejecimiento saludable.

Fundazioak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko fundazioa den aldetik, fundazioen araudi erregulatzailean aurreikusitako kontrol, gardentasun eta kontu emateen betebeharren mende dago. Bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 33. artikuluak ezartzen duenez, urteko kontuak kanpoko auditoretza baten mende jarri behar dira, ekonomia, ondare edo antolaketa inguruabar jakin batzuk gertatzen direnean, eta, era berean, aplikatzekoa da fundazioei eta kontu auditoretzari buruzko Estatuko araudian aurreikusitako araubidea.

La fundación, como fundación del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, está sujeta a las obligaciones de control, transparencia y rendición de cuentas previstas en la normativa reguladora de las fundaciones. En particular, el artículo 33 de la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco, establece la obligación de someter las cuentas anuales a auditoría externa cuando concurran determinadas circunstancias de carácter económico, patrimonial u organizativo, resultando asimismo de aplicación el régimen previsto en la normativa estatal en materia de fundaciones y auditoría de cuentas.

Kontratu honen bidez asebete nahi den beharrizana da Fundazioaren urteko kontuei buruzko auditoretza txosten independente bat lortzea, kontu horiek Fundazioaren ondarearen, finantza egoeraren eta jardueraren emaitzen irudi fidela adierazten dutela egiaztatu ahal izateko. Auditoretza, gainera, funtsezko tresna da informazio ekonomiko-finantzarioaren fidagarritasuna indartzeko eta Babesletzaren, erakundearen gobernu organoen eta gainerako interes taldeen aurrean kontuak emateko betebeharrak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

La necesidad a satisfacer mediante el presente contrato consiste en la obtención de un informe de auditoría independiente sobre las cuentas anuales de la Fundación, que permita verificar que éstas expresan la imagen fiel de su patrimonio, de su situación financiera y de los resultados de su actividad. La auditoría constituye, además, un instrumento esencial para reforzar la fiabilidad de la información económico-financiera y garantizar el adecuado cumplimiento de las obligaciones de rendición de cuentas ante el Protectorado, los órganos de gobierno de la entidad y el resto de grupos de interés.

Zerbitzu horren barruan sartzen dira baldintza tekniko partikularren agirian jasotako zereginak, klausula administrativo partikularren agirian xedatutakoaren arabera.

La prestación del citado servicio comprende las tareas recogidas en el pliego de las prescripciones técnicas particulares, de conformidad a lo dispuesto en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

Adinberri Fundazioak ez duenez behar adina giza baliabide aipatutako zeregin guztiak behar bezala egiteko, kanpoko kontrataziora jo behar da.

Dado que la Fundación Adinberri Fundazioa no dispone de los recursos humanos suficientes para realizar adecuadamente todas las tareas citadas, procede acudir a su contratación externa.

SPKLren 61. artikuluaren 1. apartatuan xedatutakoaren arabera, sektore publikoko erakundeen ordezkaritza, kontratuen arloan, pertsona bakarreko edo kide anitzeko kontratazio-organoei dagokie, baldin eta, legezko edo erregelamenduzko arau baten edo estatutu-xedapen baten arabera, haien izenean kontratuak egiteko ahalmena esleituta badute.

De conformidad con lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 61 de la LCSP, la representación de las entidades del sector público en materia contractual corresponde a los órganos de contratación, unipersonales o colegiados que, en virtud de norma legal o reglamentaria o disposición estatutaria, tengan atribuida la facultad de celebrar contratos en su nombre.

Eta, artikulu beraren 2. apartatuaren arabera, kontratazio-organoek kontratuen arloan dituzten eskumenak eta ahalmenak eskuordetu edo deskontzentratu ahal izango dituzte, kasu bakoitzean aplika daitezkeen arauak eta formalitateak betez, eskumenak eskuordetzeko edo deskontzentratzeko, administrazio-organoen kasuan, edo ahalak emateko, sozietateetako edo fundazioetako organoen kasuan.

Y, en virtud del apartado 2 del mismo artículo, los órganos de contratación podrán delegar o desconcentrar sus competencias y facultades en materia contractual con cumplimiento de las normas y formalidades aplicables en cada caso para la delegación o desconcentración de competencias, en el caso de que se trate de órganos administrativos, o para el otorgamiento de poderes, cuando se trate de órganos societarios o de una fundación.

Azaldutako guztiagatik, Patronatuak eskuordetutako eskumenak erabiliz, Adinberri Fundazioko presidenteak eta zuzendari nagusiak, modu mankomunatuan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 61., 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau

En virtud de todo lo expuesto, en el ejercicio de sus competencias delegadas por el Patronato, la Presidenta de la Fundación Adinberri y su Directora General, de manera mancomunada, conforme con lo dispuesto en los artículos 61, 116 y 117 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público

ADOSTEN DUTE

ACUERDAN

Lehenengoa.- Onartzea Adinberri Fundazioaren urteko kontu laburtuen auditoretza egiteko zerbitzua kontratatzeko espedientea (esp. zenbakia: ADINBERRI2026-001).

Primero.- Aprobar el expediente de contratación del servicio de auditoria de las cuentas anuales abreviadas de la Fundación Adinberri Fundazioa. (Nº exp.: ADINBERRI2026-001).

Bigarrengoa.- Kontratuak hiru (3) urteko iraupena izango du, eta urte bateko iraupeneko bi luzapen egiteko aukera egongo da.

Segundo.- El contrato tendrá una duración de tres (3) años, con posibilidad de dos prórrogas de un año cada una.

Hirugarrena.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 13.612,50 eurokoa da (% 21eko BEZa barne); eta balio zenbatetsia 18.750,00 eurokoa da (BEZa kanpo).

Tercero.- El presupuesto base de licitación asciende a 13.612,50 euros (21 % IVA incluido); y el valor estimado es de 18.750,00 euros (IVA no incluido).

Laugarrena.- Xedatzea erabaki honen argitalpena kontratatzailearen profilean eta lizitazio irekiaren prozedura irekitzea.

Cuarto.- Disponer la publicación del presente acuerdo en el perfil de contratante y la apertura del procedimiento de licitación abierto.

Bosgarrena.- Ahalmena ematea Adinberri Fundazioko zuzendari nagusiari kontratua esleitu, sinatu eta, hala behar izanez gero, luzatu dezan; eta, era berean, kontratua zuzen gauzatzeko beharrezkoak diren egintza, erabaki eta ebazpenak egin, hartu eta eman ditzan.

Quinto.- Facultar a la directora general de la Fundación Adinberri para adjudicar el contrato, formalizarlo y, en su caso, prorrogarlo; y para adoptar cuantos actos, decisiones y resoluciones sean necesarias para su correcta ejecución.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita BI HILABETEKO epean.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO ante la Sección de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal de Instancia de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su notificación.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita HILABETEKO epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante esta diputada foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

ADINBERRI FUNDAZIOKO LEHENDAKARIA/ PRESIDENTA DE LA FUNDACIÓN ADINBERRI

Maite PEÑA LÓPEZ

ADINBERRI FUNDAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIA / DIRECTORA GENERAL DE LA FUNDACIÓN ADINBERRI

72446378N RAQUEL SAN SEBASTIAN (R: G75204867)

Digitalki sinatuta norengandik: 72446378N RAQUEL SAN SEBASTIAN (R: G75204867)
Data: 2026.11.05 09:16:24 +01'00'

Rakel SAN SEBASTIÁN BERISTAIN